



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko otsailaren 23a

15. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea aldatzen duena. Erretiratutako Foru Lege proposamena (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, bide segurtasunari eta errepideko trafikoari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da negoziazio prozesu bat abia dezan Guardia Zibilari izaera militarra kentzeko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldek aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak egin ditzan Aceralia enpresarekin Legasako haren jabetzako lurretan industrialde bat sortzeko. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldek aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, nazioko gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuarekin abiadura handiko trenari buruzko hitzarmen bat sina dezan. Unión del Pueblo Navarro eta Convergencia de Demócratas de Navarra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, Nafarroako Parlamentuak “Europako Parlamentuaren ebazpena, CIAk ustez Europako herrialdeak presoak legez kanpo garraiatzeko eta atxilotzeko erabili izanari buruzkoa” agiriarekin bat egiteari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak gure erkidegoko landa eta nekazaritza aberastasunari eustea dela-eta duen jarrerari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andre-ak egina (10. or.).

- Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuaren web atarian Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orria den oraindik ere gaztelaniaz dagoen bakarra, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Iruñeko erdigunera sartzeko erabiltzen den denbora gutxitzeko Nafarroako Gobernuak bide azpi-egituretan egiteko aurreikusi dituen jarduketei buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Buztintxurin, Sarrigurenen eta Mendillorri osasun etxeak eta ikastetxeak eraikitzeko gobernuak dauzkan aurreikuspenei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (12. or.).
- Galdera, 0 eta 3 urte arteko haurrei hezkuntza zerbitzu jarraitu eta sistematikoa emanen dien haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe baten ezaugarriei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, 0 eta 3 urte arteko haurrei zerbitzu jarraitu eta sistematikoa emanen dieten aisialdiko eta zainketako establezimenduak egotearen legezketasunari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (13. or.).
- Galdera, hezkuntza izaera ez duen laguntza zentro batek irekitzeko lizentzia lortzeko moduari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako haur hezkuntzaren lehen zikloa arautzen duen foru dekretuko zirriborroko 13.2 artikulua eta LOEko bederatzigarren xedapen iragankorra bateragarriak izateari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako haur hezkuntzaren lehen zikloa arautzen duen foru dekretuko zirriborroko 13 artikuluko testuari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetako hezitzaileei modulu ekonomiko bat ordaintzeari buruzkoa, haien soldata administrazio publikoko langileen dagokien mailarekin parekatzeko, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Sartagudako laguntza zentroari buruzkoa, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egina (16. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren kargua hutsik egoteari buruzko adierazpena (18. or.).

**H SAILA:****Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena (19. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea aldatzen duena.**

*ERRETIRATUTAKO FORU LEGE PROPOSAMENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena, Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea aldatzen duena, erretiratu-

tzat jotzea. Foru Lege proposamen hori 2007ko otsailaren 7ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, bide segurtasunari eta errepideko trafikoari buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak bide segurtasunari eta errepideko trafikoari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **JABELDURAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, bide segurtasunari eta errepideko trafikoari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen ustez, bide segurtasuna eta errepideko trafikoa hobetzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren jarduna mugatua eta partziala izan da, Nafarroak dituen eskumenek eta gobernuaren esku dauden baliabideek (giza baliabideek eta baliabide materialek) ahalbidetzen dutenaren oso azpitik.

Bestalde, arlo horretan egin diren jarduketek ez dute estrategia global bat izan, helburuak sakanatuak eta urriak izan direlarik eta, kasu gehienetan, jarduketek trafiko jokaerak zehatu baino ez dute egin; aldiz, bide segurtasuna benetan hobetu nahi duen politikak globala eta integratua izan behar du eta prebentzio- eta heziketa- jarduketek egin beharreko lanaren ardatza izan behar dute.

Nafarroako bide segurtasunaren estrategiak eta haren betetze-maila kaskarrak dituzten gabeziaren artean, "bide segurtasuneko Nafarroako toki esparruari" dagokiona nabarmentzen da; izan ere, esparru horretako jarduketa izarra izan da toki entitate batekin eduki eraginkorrik ez duen akordio bat sinatzea eta argazkia egitea.

Jabelduraren testua:

Aurretik azaldutakoetan oinarriturik, Nafarroako Gobernuko lehendakariari bide segurtasuna eta errepideko trafikoa hobetzeari buruzko jabeldura aurkeztu zaio, jakiteko Nafarroako Gobernuak arlo horri buruz egiten duen balorazioa eta, foru erkidegoko bide segurtasuna eta errepideko trafikoa nabarmen hobetze aldera, zer urrats egin asmo duen bere kudeaketa hobetzeko eta berbiderratzeko eta pertsonen segurtasuna eta nafarren bizi kalitatea handitzeko.

Iruñean, 2007ko otsailaren 15ean

Eleduna: Fernando M.<sup>a</sup> Puras Gil

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da negoziazio prozesu bat abia dezan Guardia Zibilari izaera militarra kentzeko.**

### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Espainiako Gobernua premiatzen da negoziazio prozesu bat abia dezan Guardia Zibilari izaera militarra kentzeko”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 193. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Segurtasun indar eta kidegoei buruzko 1986ko Lege Organikoak lehenbizikoz aitortzen dizkie eskubide sindikalak polizia-kidegoetako kideei, Guardia Zibilekoei izan ezik. Guardia Zibilak izaera militarri eutsi zion, zenbait estatutu-legetan garatua. 1986tik aurrera Guardia Zibilaren baitan egiazko indar sindikal klandestino bat antolatzen hasi zen, Guardia Zibilaren desmilitarizazioa sustatzen zuena. Unión Democrática de Guardias Civiles (UDGC) izeneko elkarte baten erregistrarako eskaeraren ondorioz, sustatzailea presondegi militar batean espetxeratu zuten, ordena konstituzionala iraultzeko saioaz eta albaramendu-delituz azusatuta, harik eta Konstituzio Auzitegiak hura askatzea agindu zuen arte.

1988an Guardia Zibilaren kirol eta kultur elkar-erregiratze saioa egin zen, baina erregiratze hori ukatu egin zitzaion, “ezkutuko sindikatutzat” hartua izan zelako. Horren bultzatzaile izandako guardia zibilak jadanik ez zituzten zehatu, eta diziplina-espediterik ere ez zitzairen ireki; bitartean, beste guardia zibil batzuk agerraldiak egiten hasi ziren hedabideetan, batzuetan unifor-

mea jantzita zeukatela hedabideei bizkar emanez, beste batzuetan kaputzaz aurpegia estaliz, aurrean SUGCren idazkuna zeukatela. 1989ko martxoan guardia zibil batek prentsaurrekoa eman zuen bere etxean aurpegia erakutsiz eta uniformeak jantzirik, eta SUGCko sindikalista zela adierazi zuen; halaber, eskubide hori eta Guardia Zibilaren desmilitarizazioa eskatu zituen. Konstituzio Auzitegiak, babes-errekurtso bat ebatztea, adierazi zuen ezen, nahiz eta indar armatuen diziplina-araubidea Guardia Zibilari aplikatzea, hark berariazko araubidea egin bitartean, Konstituzioaren aurkako ez izan, egoera hori ezin zela denboran zehar mugarik gabe luzatu; horregatik, Gorteak premiatu zituen guardia Zibilerrako diziplina-lege berri bat egin zezan, indar armatuen legetik bereizita. Horren ondorioa izan zen ekainaren 17ko 11/1991 Lege Organikoa, zeinak arau-hauste oso larritzat tipifikatu eta kanporatzearekin zigortzen baitu Guardia Zibilaren baitan sindikatuak sustatzea. Hala ere, epaitegi togadun militarrek eta lurralde-azitegi militarrek albaramendu-delituaren ondorioz guardia zibilaren aurka zeuden auziak largetsi egin zituzten, horretarako oinarri hartuta guardia zibilak beren aisialdian eta armarik eraman gabe biltzen zirela, gai politikoez jarduteko hala nola desmilitarizazioa edo Guardia Zibilaren baitako sindikatuen legalizazioa, eta horrela jarduteak ez duela, bere horretan, segurtasun nazionala inola mehatxatzen, ez eta ordena publikoa ere, eta ez duela ordena konstituzionala iraultzen.

Asociación Unificada de la Guardia Civil (AUGC) bezalako erakundeek urteak daramatzate Guardia Zibila soil-soilik Barne Ministerioaren agindupean egon dadila eskatzen, bai eta haren desmilitarizazioa ere; halaber, salatzen dute polizia-zerbitzuan eginiko arau-hausteetarako Kode Militarra aplikatzen dela, eta Europako polizien kode deontologiko eta etikoei hobeki egokitzen zaizkien erregelamenduak eskatzen dituzte. Laburbilduz, haiek helburu duten polizia-ereduan lanaldia, baimenak eta oporrak gainerako funtzionarioen kasuan bezala araututa egonen dira, soldata-homologazio egokiarekin eta herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko bitarteko gaurkotuekin, eta lan-arriskuen prebentziorako araudia aplikatuko da.

Joan den urtarrilaren 20an, AUGCk Madrilen kontzentrazio batera joateko deialdia egin zuen.

Bertara uniformeak jantzita zeukaten agente ugari hurbildu ziren, guardia zibilek Espainiako gainerako polizien eskubide eta betebeharrak berberak izan nahi dituztela erreindikatzen. Barne Ministerioak kontzentrazioan uniformez jantzita parte hartu zuten agenteak identifikatu ditu eta espedienteak ireki die.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak aldeko jarrera adierazten du Espainiako Gobernuak negoziatio-prozesu bat ireki dezan, zeinean parte hartuko baitute talde politikoeak eta Guardia Zibileko agenteak

ordezkatzeko erakunde eta elkarteak. Prozesu horren emaitza izanen da Guardia Zibilaren izaera militarra amaiaraztea.

2. Nafarroako Parlamentuak agertzen du, halaber, aldeko jarrera duela Espainiako Gobernuak erabaki dezan joan den urtarrilaren 20ko kontzentrazioetara uniformez jantzita joan ziren Asociación Unificada de Guardias Civiles-eko kide diren Guardia Zibileko agenteei irekitako espedienteak erretiratzea.

Iruñean, 2007ko otsailaren 15ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behar diren urratsak egin ditzan Aceralia enpresarekin Legasako haren jabetzako lurretan industrialde bat sortzeko.**

### *EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da behar diren urratsak egin ditzan Aceralia enpresarekin Legasako haren jabetzako lurretan industrialde bat sortzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeak eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko eledun Begoña Errazti Esnalek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatu-

aren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Gure erkidegoaren garapen endogenoa sustatzeko, batez ere Nafarroako iparraldean, beharrezkoa da garapen ekonomiko eta soziala ahalbidetuko duten azpiegiturak egitea.

Legasan, 200.000 metro koadro inguruko industriarako zelaigune bat dago, gaur egun Aceraliarena dena eta erabili gabe dagoena; bertan, eskualderako funtsezkoa izan daitekeen industria-jarduera bat gara daiteke.

Horregatik guztiagatik, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du behar diren urratsak egin ditzan Aceralia enpresarekin Legasako haren jabetzako zelaigunean industrialde bat sortzea ahalbidetzeko.

Iruñean, 2007ko otsailaren 15ean

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

## **Mozioa. Horren bidez, nazioko gobernuia premiatzen da Nafarroako Gobernuarekin abiadura handiko trenari buruzko hitzarmen bat sina dezan.**

### *UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Unión del Pueblo Navarro eta Convergencia de Demócratas de Navarra parlamentu-taldeek parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu dute: "nazioko gobernuia premiatzen da Nafarroako Gobernuarekin abiadura handiko trenari buruzko hitzarmen bat sina dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) eta Nafarroako Demokratien Elkargunea (NDE) parlamentu-taldeetako eledun Carlos García Adanero eta Juan Cruz Alli Aranguren, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio hau aurkeztu dute Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Abiadura handiko trenari buruzko mozioa

Zioen azalpena

Espainia osoan abiadura handiko trenbide-sare berria eraikitzen ari da nazioko gobernuia, bere eskumenen esparruan, eta horrek funtsezko aldaketa ekarriko du herrialde osoko garraio-sisteman; horrela, nabarmen hobetuko da nazioko lurraldearen barreneko irisgarritasuna, eta argiro suspertuko da Espainiako eskualdeen lehiakortasuna.

Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitateak eskubidea du nazioko gobernuari galdatzeko Nafarroako abiadura handiko korridorea eraiki dezan, Zaragoza, Tuter eta Iruña euskal "Y"arekin lotzeko.

Trenbide-proiektu hori, berebiziko garantia duena, 1994an onetsiriko Estatuko azpiegituren plan zuzendarian jaso zen. 1996 eta 1997. urteetan zehar Sustapen Ministerioak, Nafarroako

Gobernuarekin lankidetzan, behar bezalako alternatiba-azterlan egin zuen Nafarroako abiadura handiko korridore osorako, Zaragoza eta euskal "Y"aren artean.

Alternatiba-azterlan horretan adierazitakoaren ondorioz, Sustapen Ministerioak, 1999tik 2004rako tartean, honako informazio-azterlan hauek prestatu zituen: 1. zatiari buruzkoa, Zaragoza, Tuter eta Castejón artekoa; 2. zatiari buruzkoa, Castejón eta Iruñerriaren artekoa, eta 3. zatiari buruzkoa, Iruñerrikoa, Arrizabalaga eta Zuasti (Itza) bitartekoa. 2. eta 3. zatiei dagokienez (90 kilometro baino gehiagoko luzera dute), 2004ko uztailaz geroztik ingurumen eraginaren adierazpena eta informazio azterlan daukate, Ingurumen Ministerioak eta Sustapen Ministerioak onetsiak, hurrenez hurren.

Aldi berean, Sustapen Ministerioak 2004ko otsailean kontratatu zuen Iruñerriko trenbide-kiribilgunea kentzeko trenbide-plataforma berria eraikitzeko proiektua, zeina bat baitator abiadura handiko trenak Iruñerrian duen ibilbidearekin, Ezkizotz eta Zuasti artean.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak eta Sustapen Ministerioak akordio orokor bat sinatu zuten 2002ko abenduaren 17an, interes komuneko azpiegiturak garatzeko, 2010. urte-inguruan egitekoak direnak. Akordio horretan, Sustapen Ministerioak konpromisoa hartu zuen une horretarako Zaragoza eta Iruña artean Nafarroako abiadura handiko korridorea eraikita egoteko. Konpromiso hori aurretiazko urrats bat zen, 2010 eta gero Iruña eta euskal "Y"aren arteko lotura egiteko.

Esan daiteke 2004ko uztailaz geroztik nazioko gobernuak ez duela aurrerapausorik eman Nafarroako abiadura handiko korridorea 2010. urterako Iruñera bitartean eraikia eta zerbitzua ematen egon ahal izateko beharrezko diren izapideei dagokienez, eta beraz, Nafarroako abiadura handiko korridore guztia bukatu eta 2013an euskal "Y"arekin lotzeko beharrezkoak diren espedienteen izapidetzea eta azterlan teknikoan jarraipena ere ez dira aipatu.

2004ko uztailetik 2007ko otsailerako epe horretan, nahiz eta informazio azterlanak eta ingurumen eraginaren adierazpena onetsiak dauden

2. eta 3. zatietarako, Castejóndik Iruñaren iparralderaino (Zuasti), eta 1. zatiari buruzko informazio azterlana, Zaragozatik Tuterara eta Castejónerako tarteari buruzkoa, onesteke dagoen, Sustapen Ministerioak egin duen gauza bakarra izan da Kantauri eta Mediterraneo itsasoan (Euskal Autonomia Erkidegoa-Valentzia) arteko trenbide-korridore osoari buruzko azterlan funtzional berri bat abiarazi, zeinak, praktikan, Nafarroako abiadura handiko korridorearen eraikuntzarekin zerikusia duten jarduketa guztiak gerarazi baititu.

Aldi berean, Espainiako abiadura handiko sarea aurrerapauso nabarmenak ematen ari da nazioko lurraldearen gainerakoan; beraz, urte gutxi batzuetan penintsulako autonomia erkidego ia guztiek izanen dute abiadura handiko tren.

Azpimarratzekoa da ezen, gauza jakina denez, nazioko gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak 2006ko apirilaren 24an hitzarmen bana sinatu zituztela, Sustapen Ministerioaren, ADIFen eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren parte-hartzearekin, eta horien bitartez Eusko Jaurlaritzak abiadura handiko euskal "Y" deritzonaren zati garrantzitsu bat eraiki eta finantzatzeko ekimena bere gain hartu zuela; bereziki, Gipuzkoako adarrari zegokionez. Horretarako, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko hitzarmen ekonomikoan aurreikusitako kupotik deskontua eginen zuen.

Aurrekari horiek guztiak ikusirik, 2005eko abenduaz geroztik Nafarroako Gobernuak nazioko gobernuari eskaini izan dio, publikoki eta nabarmen, egokiak diren hitzarmenak Nafarroako Foru Komunitatearen eta Estatuako Administrazio Orokorren artean sinatzeko aukera, Eusko Jaurlaritzarekin jadanik sinaturikoen baldintza beretan, hala-ko moldez non Nafarroak Nafarroako abiadura handiko korridorearen zati garrantzitsu baten eraikuntza eta finantzaketa bere gain hartu ahalko lukeen, eta berezitasun gisa izanik, Eusko Jaurlaritzarekin sinaturiko hitzarmenekin alderatuta, honako hau: Nafarroako Foru Komunitatea prest legokeela finantzaketaren aurrerapen hori deskontatzera Nafarroak Estuari egiten dion ekarpen ekonomikoa murriztuz Estuak Nafarroako abiadura handiko korridorea eraikitzeak obrak egitea aurreikusirik dituen urteetan, eta ez urterik urte, zeina baita Eusko Jaurlaritzarekin sinaturikoa.

Nafarroako Gobernuaren proposamen horrek ahalbidetuko luke Nafarroako abiadura handiko korridore osoaren eraikuntza hamar urte inguru aurreratzea.

Hori horrela, Estatuako Administrazio Orokorren eta Nafarroako Gobernuaren ordezkarien arte-

an bilera ugari egin ondoren, Nafarroako Gobernuak Sustapen Ministerioari bidali zizkion, 2006ko ekainaren 28an, kasuko dokumentuak, hitzarmenen proposamenarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin sinaturikoen kopiekin, betiere Nafarroako abiadura handiko korridorearen ezaugarrietara egokituak.

Dokumentu horiek bidali zirenetik zortzi hilabete igaro direnean, nazioko gobernuak ez dio baieztiko erantzunik eman Nafarroako Foru Komunitateari.

Adierazi beharrekoa da ezen, foru komunitatearen egoerari buruz 2006ko urriaren 19 eta 20an Nafarroako Parlamentuan eginiko eztabaidan ebazpen bat onetsi zela, Legebiltzarreko talde politikoaren gehiengo handi batek bozkatua, non nazioko gobernuak premiatzen baitzen berehalakoan sinatzera Nafarroaren eta Estatuaren arteko hitzarmena, Nafarroako abiadura handiko korridorea eraiki eta finantzatzekoa.

Horrez gain, Senatuak 2007ko otsailaren 6an mozio bat onetsi zuen, zeinak nazioko gobernuak berriro ere premiatzen baitzuen hitzarmen hori sinatzera, bi hilabeteko epean.

Kontuan izanik Nafarroarentzat izugarritzko garrantzia duela Nafarroako abiadura handiko korridorea lehenbailehen edukitzeak, bai eta Nafarroako Foru Komunitatearen begi-bistako nahia, bere Parlamentuaren, Gobernuaren eta erakunde sozial eta ekonomikoaren bitartez adierazia, nazioko gobernuari neurririk handienez errazteko trenbide-azpiegitura honen eraikuntza eta finantzaketaren aurrerapena, bidezkoztat jotzen da gobernu horri eskatzea berehala sina ditzan behar diren hitzarmenak, une honetan ez baitago horrelakorik eragozten duen baldintza tekniko, ekonomiko edo eskumenei dagokienik, eta hori guztia Nafarroako herritarren eta Espainiaren gainerako lurraldeetako herritar guztien mesederako izanen delako.

Hori dela-eta, mozio hau aurkezten dugu, onetsia izan dadin:

Nafarroako Parlamentuak nazioko gobernuak premiatzen du gehienez ere bi hilabeteko epean beharrezkoak diren lankidetzak-hitzarmenak sina ditzan Nafarroako Gobernuarekin, horretarako negoziazioaren emaitza gisa, indarreko legediari jarraikiz, elkarri norbere eskumen-esparrua errespetatuz eta indarreko hitzarmen ekonomikoko bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren babesean, Zaragoza-Tutera-Iruñetik doan eta euskal "Y"arekin lotzekoa den Nafarroako abiadura handiko korridorearen eraikuntzan lankidetzan aritzeko, Estatuarekin hitzartzen diren baldintzetan, finantzaketa-formula egoki bat erabiliz, halako moldez non



Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartzen dituen Nafarroako korridorera beharrezko inbertsioak kendu ahalko baitira Estatuaren karga orokorretarako ekarpenetik, oinarri gisa harturik Nafarroako Gobernuak 2006ko ekainaren 28an

Sustapen Ministerioari igorritako hitzarmen-proposamenak.

Iruñean, 2007ko otsailaren 15ean

Eledunak: Carlos García Adanero eta Juan Cruz Alli Aranguren

---

**Adierazpen instituzionala, Nafarroako Parlamentuak “Europako Parlamentuaren ebazpena, CIAk ustez Europako herrialdeak presoak legez kanpo garraiatzeko eta atxilotzeko erabili izanari buruzkoa” agiriarekin bat egiteari buruzkoa.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du “Europako Parlamentuaren ebazpena, CIAk ustez Europako herrialdeak presoak legez kanpo garraiatzeko eta atxilotzeko erabili izanari buruzkoa” agiriarekin. Ebazpena 2007ko otsailaren 14an onetsi zuen Europako Parlamentuak.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Espainiako Gobernuak aipatu ebazpenean jasotako gomendio guztiak betetzearen aldeko dela eta, edonola ere, presoak legez kanpo garraiatu eta atxilotzearekin lotutako gertaerak ahalik eta modurik argienean ezagutzeko eta etorkizunean antzeko gertaerak berriro ez gertatzeko bere eskume-

nen arloko neurri guztiak hartzearen aldeko dela; era berean, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubide guztiak eta barne eta nazioarteko legitimitatea errespetatzen.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Espainiako Gobernuak Kubako Guantánamoko base militarrean Amerikako Estatu Batuetako indar armatuek espetxeratutako pertsonei Espainiako polizia egindako galdeketen inguruko gertaerak erabat argitzearen alde dagoela; izan ere, gertaera horiek egiaztatzen badira, nazioarteko legeriaren eta zuzenbide estatuaren oinarrikoen printzipioen aurka doaz.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak gure erkidegoko landa eta nekazaritza aberastasunari eustea dela-eta duen jarrerari buruzkoa.***FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak gure erkidegoko landa eta nekazaritza aberastasunari eustea dela-eta duen jarrerari buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Rivas andreak, Legebiltzarreko Erregelamen-

duak 186. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Azken gertaerak direla-eta, hau da, nekazaritza lurzoruak edo lurzoru urbanizaezinak –azken batean, babesteko edo nekazaritzarako lurrak– etxebizitzak eraikitzeke erabiltzea, honako jakin nahi dugu:

Zein da Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak gure erkidegoko landa eta nekazaritza aberastasunari eustea dela-eta duen jarrera?

Urratsak egin al dira arlo horretan eskumenak dituzten gobernu eta/edo departamentuekin landa ingurunea zaintzeko eta babesteko politika bat ezartzeko?

Iruñean, 2007ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Rivas

## **Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuaren web atarian Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orria den oraindik ere gaztelaniaz dagoen bakarra.**

*FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuaren web atarian Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orria den oraindik ere gaztelaniaz dagoen bakarra. Galdegileak eskatu du Hezkuntza Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du Hezkuntza kontseilari Luis Campoy Zueco jaunak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Galdera:

Zergatik Nafarroako Gobernuaren web atarian Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orria da oraindik gaztelaniaz dagoen bakarra?

Iruñean, 2007ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Iruñeko erdigunera sartzeko erabiltzen den denbora gutxitzeko Nafarroako Gobernuak bide azpiegituretan egiteko aurreikusi dituen jarduketei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Iruñeko erdigunera sartzeko erabiltzen den denbora gutxitzeko Nafarroako Gobernuak bide azpiegituretan egiteko aurreikusi dituen jarduketei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

José Lizarbe Baztán, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer urrats egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak, bakarrik edo Iruñerriko udalekin elkarlanean, bideko azpiegitura eta seinaleetan, autobus-errietan, garraio kolektiboan, trafikoaren antolamenduan eta bide segurtasunean, Iruñeko auzoetatik eta Iruña ondoko herrietatik hirigunera sartzeko herritarrek, sarbideen gabeziak eta sortzen diren ibilgailuen pilaketak direla-eta, eman behar duten denbora luzea desagertarazteko edo murrizteko?

Iruñean, 2007ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

## **Galdera, Buztintxurin, Sarrigurenen eta Mendillorri osasun etxeak eta ikastetxeak eraikitzekeo gobernuak dauzkan aurreikuspenei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Buztintxurin, Sarrigurenen eta Mendillorri osasun etxeak eta ikastetxeak eraikitzekeo gobernuak dauzkan aurreikuspenei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

“Sarrigurengo bizilagun berriek badakite ekohiria, oraindik, garatze fasean dagoen lotarako auzo

bat baino ez dela. Bertan, 1.807 lagun daude erroldatuta eta 2.000 baino gehiago bizi dira; auzoan osasun etxea eta ikastetxe publikoa bezalako funtsezko zerbitzuak ez egoteak auzoko askok zerbitzu horiek izateko Mendillorri joan behar izana ekarri du” (Diario de Noticias, 2007-2-12).

“Askotan eskatu den Buztintxuriko osasun etxea, 17.000 pertsona baino gehiago artatuko dituen, ez da abian jarriko 2010. urtera arte” (Diario de Noticias).

Galdera

Zergatik Buztintxuriko bizilagunek 2010. urtera arte itxaron behar dute auzoan osasun etxe bat izateko? Zergatik Sarrigurengo bizilagunek Mendillorri joan behar dute ikastera edo medikuarengana? Zergatik bigarren hezkuntzako ikasleek, 2007ko otsailaren 15ean, Mendillorritik atera behar dute?

Iruñean, 2007ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, 0 eta 3 urte arteko haurrei hezkuntza zerbitzu jarraitu eta sistematikoa emanen dien haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe baten ezaugarriei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galdera, 0 eta 3 urte arteko haurrei hezkuntza zerbitzu jarraitu eta sistematikoa emanen dien haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe baten ezaugarriei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikularen eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2006ko irailean, ontzat eman zuen (18 boto alde, 2 aurka eta 5 abstentzio) Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen foru dekretuaren zirriborroa; horren bidez ezartzen dira ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak eta zikloaren hezkuntza edukiak.

Kontsulta-izapide hori gaindituta, testua gobernuaren esku gelditu da legegintzaldia bukatu baino lehen onets dezan eta 2007/2008 ikasturtean indarra har dezan.

Oso garrantzitsua den 0-3 urte bitarteko zikloaren antolakuntza eta curriculuma arautuko dituen zirriborro hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zuen ustez, zer da 0 eta 3 urte arteko haurrei hezkuntza zerbitzu jarraitu eta sistematikoa ematen dien haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe bat? Ahalik eta zehatzen azaldu.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, 0 eta 3 urte arteko haurrei zerbitzu jarraitu eta sistematikoa emanen dieten aisialdiko eta zainketako establezimenduak egotearen legezkotasunari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galdera, 0 eta 3 urte arteko haurrei zerbitzu jarraitu eta sistematikoa emanen dieten aisialdiko eta zainketako establezimenduak egotearen legezkotasunari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2006ko irailean, ontzat eman zuen (18 boto alde, 2 aurka eta 5

abstentzio) Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen foru dekretuaren zirriborroa; horren bidez ezartzen dira ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak eta zikloaren hezkuntza edukiak.

Kontsulta-izapide hori gaindituta, testua gobernuaren esku gelditu da legegintzaldia bukatu baino lehen onets dezan eta 2007/2008 ikasturtean indarra har dezan.

Oso garrantzitsua den 0-3 urte bitarteko zikloaren antolakuntza eta curriculuma arautuko dituen zirriborro hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Legez izan ahalko dira 0 eta 3 urte arteko haurrei zerbitzu jarraitu eta sistematikoa ematen dieten aisialdirako eta haurrak lagundu edo zaintzeko establezimendu edo zerbitzuak? Norik arautuko ditu zentro horiek? Nola kontrolatu eta ikuskatuko dira erregulartasunez?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, hezkuntza izaera ez duen laguntza zentro batek irekitzeko lizentzia lortzeko moduari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galdera, hezkuntza izaera ez duen laguntza zentro batek irekitzeko lizentzia lortzeko moduari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikularen eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2006ko irailean, ontzat eman zuen (18 boto alde, 2 aurka eta 5 abstentzio) Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen foru dekretuaren zirriborroa; horren bidez ezartzen dira ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak eta zikloaren hezkuntza edukiak.

Kontsulta-izapide hori gaindituta, testua gobernuaren esku gelditu da legegintzaldia bukatu baino lehen onetsi dezan eta 2007/2008 ikasturtean indarra har dezan.

Oso garrantzitsua den 0-3 urte bitarteko zikloaren antolakuntza eta curriculum arautuko dituen zirriborro hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Nola lortuko du irekitzeko lizentzia hezkuntza izaera ez duen eta zerbitzu jarraitu eta sistemati-koa ematen duen laguntza zentro batek?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Nafarroako haur hezkuntzaren lehen zikloa arautzen duen foru dekretuko zirriborroko 13.2 artikulua eta LOEko bederatzigarren xedapen iragankorra bateragarriak izateari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako haur hezkuntzaren lehen zikloa arautzen duen foru dekretuko zirriborroko 13.2 artikulua eta LOEko bederatzigarren xedapen iragankorra bateragarriak izateari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikularen eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2006ko irailean, ontzat eman zuen (18 boto alde, 2 aurka eta 5 abstentzio) Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen foru dekretuaren zirriborroa; horren bidez ezartzen dira ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak eta zikloaren hezkuntza edukiak.

Kontsulta-izapide hori gaindituta, testua gobernuaren esku gelditu da legegintzaldia bukatu baino lehen onets dezan eta 2007/2008 ikasturtean indarra har dezan.

Oso garrantzitsua den 0-3 urte bitarteko zikloaren antolakuntza eta curriculuma arautuko dituen zirriborro hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Nola egingen dira bateragarri aipatu zirriborroko 13.2 artikulua eta 2006ko maiatzaren 3ko LOEko (Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa)

bederatzigarren xedapen iragankorra? Xedapenak honela dio hitzez hitz: “Hiru urtetik beherako haurrak hartzen dituzten ikastetxeek, lege honek indarra hartzean haur hezkuntzako ikastetxearen baimenik ez badute, edo eskolaurreko hezkuntzako ikastetxearen baimena badute, gobernuak, autonomia erkidegoei entzun eta gero, zehaztuko duen epea izanen dute, ezarriko diren gutxieneko baldintzetara egokitzeko”.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Nafarroako haur hezkuntzaren lehen zikloa arautzen duen foru dekretuko zirriborroko 13 artikuluko testuari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako haur hezkuntzaren lehen zikloa arautzen duen foru dekretuko zirriborroko 13 artikuluko testuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2006ko irailean, ontzat eman zuen (18 boto alde, 2 aurka eta 5 abstentzio) Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen foru dek-

retuaren zirriborroa; horren bidez ezartzen dira ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak eta zikloaren hezkuntza edukiak.

Kontsulta-izapide hori gaindituta, testua gobernuaren esku gelditu da legegintzaldia bukatu baino lehen onets dezan eta 2007/2008 ikasturtean indarra har dezan.

Oso garrantzitsua den 0-3 urte bitarteko zikloaren antolakuntza eta curriculuma arautuko dituen zirriborro hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Testua interpretatzean anbigutasunak saihesteko, zergatik ez zen honela idatzi aipatu zirriborroko 13. artikulua?: 1. Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak dira 0 eta 3 urte arteko haurrei hezkuntza zerbitzua ematen dietenak, betiere foru dekretu honetan ezarritako baldintza eta betebeharre jarraikiz. 2. Hiru urtetik beherako haurrak hartzen dituzten gainerako zentroek egokitu eta dekretu honetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte, irekitzeko eta abian jartzeko behar duten administrazio baimena lortzeko.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetako hezitzaileei modulu ekonomiko bat ordaintzeari buruzkoa, haien soldata administrazio publikoko langileen dagokien mailarekin parekatzeko.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galdera, haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetako hezitzaileei modulu ekonomiko bat ordaintzeari buruzkoa, haien soldata administrazio publikoko langileen dagokien mailarekin parekatzeko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2006ko irailean, ontzat eman zuen (18 boto alde, 2 aurka eta 5 abstentzio) Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen foru dekretuaren zirriborroa; horren bidez ezartzen dira ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak eta zikloaren hezkuntza edukiak.

Kontsulta-izapide hori gaudituta, testua gobernuaren esku gelditu da legegintzaldia bukatu baino lehen onetsi dezan eta 2007/2008 ikasturtean indarra har dezan.

Oso garrantzitsua den 0-3 urte bitarteko zikloaren antolakuntza eta curriculum arautuko dituen zirriborro hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zergatik Nafarroako Gobernuak ez du bermatzen haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetako hezitzaileei modulu ekonomiko bat ordaintzea, haien soldata administrazio publikoko dagokien mailarekin parekatzeko?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Sartagudako laguntza zentroari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI AURELIA LUMBRERAS IÑIGO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak egindako galdera, Sartagudako laguntza zentroari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

UPN eta CDN alderdiek “in voce” zuzenketa bat aurkeztu dute, Gizarte Ongizateko Departamentuari 350.000 euro emateko, Sartagudako



laguntza zentroko obrak diruz laguntzeko, eta Parlamentuko Osoko Bilkurak zuzenketa hori onetsi du.

Zuzenketaren zioen azalpenean esaten denez, Gizarte Ongizateko Departamentuak ekimen sozialari eta udal horri laguntza eman nahi die, beharrezkoak diren dotazioak izan ditzaten, herri horretako beharrezkoak arabera.

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

Zein da Gizarte Ongizateko Departamentuak egingen duen egiazko ekarpen ekonomikoa Sartagudako laguntza zentroko lanak egiteko?

Departamentuak ba al du lankidetzaren hitzarmenik Sartagudako Udalarekin? Hala bada, lankidetzaren hitzarmen horren kopia nahi dut.

Inbertituko den diru kopurutik, zein da Gizarte Ongizateko Departamentuak jarriko duen ehunekoa?

Zer ekarpen egingen du udalak?

Zer ezaugarri izanen ditu Sartagudako eraikiko den zentroak? (Egoitza, eguneko zentroa...)

Ba al daki departamentuak Sartagudako Udalak laguntza zentroa eraikitzeko ekonomia eta bideragarritasun azterlanik egin duen? Hala baldin bada, horren kopia nahi dut, azterlan hori departamentuaren esku baldin badago.

Iruñean, 2007ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Aurelia Lumbreras Íñigo

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren kargua hutsik egoteari buruzko adierazpena.**

Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 2.1 artikulua xedatzen du arartekoa Nafarroako Parlamentuak hautatuko duela, sei urteko eperako. Foru lege horretako 8.1.b) artikulua ezartzen du arartekoak kargua utziko duela ezarritako epea amaitzeagatik, eta 8.2 artikulua zehazten duenez, kargualdia amaitzen denean Nafarroako Parlamentuko lehendakariak adieraziko du kargua hutsik dagoela.

Gaur egungo arartekoa 2001eko otsailaren 22an izendatua izan zenez, bere kargualdia 2007ko otsailaren 22an amaitu da; beraz, aurretik

aipaturiko artikuluei eta Parlamentuko Mahaiak joan den otsailaren 12an arartekoaren hautaketarako onetsiriko arauetako lehenari jarraikiz,

**ERABAKI DUT:**

**Lehena.-** Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren kargua 2007ko otsailaren 23tik aurrera hutsik dagoela adieraztea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2007ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurra Induráin

---

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Unión del Pueblo Navarro, Socialistas del Parlamento Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Aralar, Nafarroako Demokraten Elkargunea, Eusko Alkartasuna eta Askotariko parlamentu-taldeek Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko azken xedapenetako lehenbizikoarekin eta 145. artikuluekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena tramitera onartzea eta Osoko Bilkurara igortzea aintzat har dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena**

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzea.

1995eko otsailaren 2ko Osoko Bilkuran onetsitako Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko artikulu, idatz-zati, xedapen eta idazpuru hauetan sartuko dira honako aldaketak, adierazten den moduan:

#### 3. artikulua.

– 3. artikulua aldatu eta honela geratuko da idatzita:

“.. Parlamentuko Mahaia hautatu arte aritzeko.”

#### 7. artikulua.

– 7. artikulua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“Bateraezinak dira Parlamentuko mahaikide kargua eta Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioako lehendakari edo kontseilari kargua.”

#### II. titulua.

– Gaztelaniazko testuan, II. tituluko idazpurua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“DE LAS PARLAMENTARIAS Y LOS PARLAMENTARIOS FORALES”

#### 14. artikulua.

14. artikulua 2. eta 3. idatz-zatiak aldatu dira, eta beste hiru idatz-zati berri gehitu zaizkio artikuluari, 4.a, 5.a eta 6.a, testu honekin:

“2. Beren eginkizunak hobeki betetzeko, foru parlamentarietako zilegi izanen dute Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari eta bere erakunde publiko, sozietate publiko eta fundazio publikoetako eskatzeko administrazio eta ente horietako eginkizunak jarduketan ondorio diren datu, txosten edo administrazio-dokumentuak, baldin eta horietako ezagutzearekin urratzen ez badira datu pertsonalak babeste aldera legez ezarritako bermeak. Dokumentazioaren kantitatea dela-eta zaila bada dokumentazio horren kopia bidaltzea, administrazio-organoko eskudunak foru parlamentariaren eskueran ipiniko du eskatu den dokumentazioa, egoki deritzen oharrak idatz ditzan.

3. Betiere, horretarako eskaera Parlamentuko lehendakariaren bitartez helaraziko da, eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa behartuta egonen da eskaturiko dokumentazioa hogeita eguneko epean eskueran ipintzera. Kontrako kasuan, aipaturiko administrazioak Parlamentuko lehendakariari jakinarazi beharko dizkio, hark eskatzaileari helaraz diezazkion, eskaera betetzea eragozten duten arrazoiak, zeinek zuzenbidean oinarrituta egon beharko baitute. Baldin eta publikoaren eskueran dauden iturri ofizialekin dauden

datu, txosten edo dokumentuak eskatzen badira, administrazioak zilegi izanen du haiek zer toki zehatzetan eskueran dauden adieraztera mugatzea, betiere eskatutakoak erreproduzitu ahal badira.

4. Foru parlamentariak eskatu ahalko du, halaber, Legebiltzarreko lehendakariaren bitartez eta taldeko eleduna alde zurretik jakinaren gainean egonda, Estatuko administrazioako agintari, organismo eta erakundeetako informazioa. Nafarroako toki entitateetako informazioa ere eskatu ahalko du.

5. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak bere aurrekontu-kudeaketako sistemarako sarbide informatikoa emanen die foru parlamentariari, zehaztuko diren baldintzetan eta sistemaren segurtasunerako beharrezkoak diren bermekin betiere.

6. Foru parlamentariak eskubidea dute Nafarroako Gobernuak kideen eta Foru Komunitateko administrazioako goi karguen jardura eta interesen erregistroan sartu eta hura kontsultatzeko, jardura-aitorpenen zatiari dagokionez betiere. Horretarako eskaera Parlamentuko lehendakariaren bitartez helaraziko zaio Foru Komunitateko administrazioako organo eskudunari, eta gehienez ere bost eguneko epean onartu beharko da.”

#### 15. artikulua.

– 15. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak aldatu eta honako testu hau izanen dute:

“1. Foru parlamentariak diru kopuru bat jasoko dute, bai eta laguntzak eta gastuen ordainak ere, beren eginkizuna eraginkortasunez eta duintasunez bete ahal izateko.

Diru kopuru horrek hiru modalitate ditu, eta foru parlamentari hautetsi bakoitzak haietako bat aukeratu beharko du, kreditatu eta ondoko hogeitau eguneko epearen barrenean. Eginiko aukera aldatu ahalko du hiruhileko bakoitzeko azken hamabost egun naturaletan, salbu eta Parlamenturako hauteskundeak egiten diren urtean. Nolanahi ere, ezin izanen da bi aldiz baino gehiago aldatu legegintzaldi batean zehar.

Salbuespen gisa, eta interesdunak arrazoiak azalduz eskaera egin ondoren, Mahaiak zilegi izanen du aldaketa onartzea gorago adierazitako mugei lotu gabe.

Modalitate horiek dira:

a) Aldizkako ordainsari finkoa, lanaldi osoko araubidearekin. Modalitate honetan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioako goi karguen-

tzat ezarritako bateraezintasun-araubidea aplikatuko zaie foru parlamentariari.

b) Aldizkako ordainsari finkoa, lanaldi osoko araubiderik gabe. Modalitate honetan, funtzionario publikoentzat ezarritako ordainsari-bateraezintasunen araubidea aplikatuko zaie foru parlamentariari.

c) Bertaratzearen araberrako ordainsaria; alegia, deitzen zaie parlamentu-ekitaldietara bertaratzearen truke dieta bat jasotzea.

a) eta b) letretan aipatutako ordainsariak bateraezintasunak dira edozein erretiro-pentsio publiko jasotzearekin.

Foru parlamentariak ordainsaria jasotzeko eskubidea izanen dute hurrengo Legebiltzarra eratu arte.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ordainsari-modalitate bakoitzaren eta gastuei aurre egiteko bidezko diren laguntzen eta ordainen zenbatekoak zehaztu eta kasuan kasuko aurrekontuen barrenean sartuko ditu, eta aipaturiko organoetako kide direnak bereiziko ditu. Halaber, ordainsari horien araubide juridikoa zehaztuko du. Ordainsariak jasotzeko baldintzen artean ezarri beharko da Erregelamendu honetako 21. artikuluan aipaturiko bertaratze-betebeharra.

#### 17. artikulua.

– 17. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“17. artikulua. 1. Aldizkako ordainsari finkoak jasotzen dituzten foru parlamentariari dagozkien Gizarte Segurantzarako kotizazioak ordainduko dira Parlamentuaren aurrekontuaren kargu.

2. Nafarroako Parlamentuak Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileekin izenpe ditzake aurreko atalean ezarritakoa betetzeko behar diren itunak, baita Gizarte Segurantzaren lehendik sarturik ez zeuden foru parlamentariak behar den araubidean afiliatzeko ere.

3. Lanaldi osoko araubidean sartzen diren eta, beren lanbidearengatik, Gizarte Segurantzaz bestelako aurreikuspen sozialeko sistema batekoak diren foru parlamentariak zilegi izanen dute sistema horretan segitzeko erabakia hartzea; kasu horretan, Parlamentuak kasuan kasuko mutualitate-kotizazioak ordainduko dizkie.”

#### 29. artikulua.

– Beste lerrokada bat erantsiko zaio 29.3 artikuluari; honela dio hitzez hitz:

“Hautagai-zerrenda berean hautaturiko foru parlamentariak ezin dute inolako kasutan parlamentu-talde bereizirik eratu edo eratzten lagundu. Halaber, hauteskunde garaia denean aurretik inolako hauteskundetan parte hartu ez duten alderdi politikoetakoak diren foru parlamentariak ere ezin izanen dute parlamentu-talde bereizirik eratu.”

IV. titulua. I. kapitulua. 1. atala (idazpuru).

– IV. tituluko I. kapituluko 1. atala aldatzea.  
Testu hau izanen du:

Mahaiaren eskumenak eta jarduera.”

37. artikulua.

– 37. artikuluko 2. idatz-zatiaren testua aldatu eta 3. idatz-zati berria gehitzea.

“2. Parlamentu-talde bat edo foru parlamentariaren bat ados ez badago Mahaiak aurreko atalean adierazitako 6 eta 7. eginkizunetan jardutean hartutako erabakiarekin, errekurtsioa aurkeztu ahalko dio Eledunen Batzarrari, erabakia jakinarazi edo argitaratu ondorengo bost eguneko epearen barrenean. Hark behin betikoz erabakiko du, ebazpen arrazoituaren bidez.

“3. Mahaiak 1. idatz-zatiko 1. eta 5. eginkizunak erregelamendu bidez esleitu ahalko dizkie Nafarroako Parlamentuko administrazioako beste organo batzuei.”

39. artikulua.

– 39. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea, honelaxe:

“hamar eguneko” epearen ordez,

“hamabost eguneko”

– 39. artikuluko 3. idatz-zatiko c) letra aldatzea, horrela:

“gehiengo osoaren bidez” dioen tokian

“hiru bosteneko gehiengoaren bidez”;

– 39. artikuluko 4. idatz-zatiko a) letra aldatzea.  
Hona testu berria:

“a) Gutxienez ere Parlamentuko kideen hiru bostenek edo kopuru hori biltzen duten parlamentu-taldeek proposatu beharko dute kargutik kentzea.”

51. artikulua.

– 51. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak aldatu eta honako testu hau izanen dute:

“1. Batzordeetako mahaietan, lehendakariaren postua bete gabe badago, bete ezin badu edo lehendakaria ez badago, lehendakariordeak

ordeztuko du lehendakaria. Lehendakariordea kasu horietako batean badago, lehendakariaren ordez arituko da bere parlamentu-taldeko ordezkaribat, kasuan kasuko batzordeko kide dena.

2. Batzorde bateko lehendakariordearen edo idazkariaren ordez arituko da, kasu horietan, parlamentu-talde bereko ordezkaribat, kasuko batzordeko kide dena.”

54. artikulua.

– 54. artikuluko 3. idatz-zatiari testu berria ematen zaio:

“3. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, batzordeen lan bilkurak egin daitezela erabaki dezake. Bilkura horiek informatzeko edo eztabaizatzeko izanen dira, eta ez da haien aktarik eginen. Proposamen-egileak eskaturik Mahaiak hala erabakiz gero, hedabideak bilkura horietara joan ahalko dira.

58. artikulua.

– 58. artikuluko 1. eta 3. idatz-zatiei testu berria emanen zaie:

“1. Batzorde arruntak dira Foru Araubidekoa eta Mahaiak legegintzaldi bakoitzaren hasieran zehazten dituenak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren; betiere, foru erkidegoko administrazioaren departamentuen arabera izanen dira.”

“3. Batzorde arruntak Parlamentuaren eratze bilkura egin eta hogeita hamar eguneko epean eratu beharko dira.”

58. bis artikulua.

– 58. bis artikulua berria gehitzea. Hona testua:

“58. bis artikulua. 1. Eskaera Batzordea ere batzorde arrunta izanen da. Eskaera Batzordea da herritarrek eskea egiteko eskubidea egikaritzean Nafarroako Parlamentuari zuzentzen dizkieten eskaerak izapidetzeko organo eskuduna. Batzordearen osaketa eta funtzionamendua lotuko zaizkio 45. artikulua eta horrekin bat datozenek ezarritakoari.

2. Eskaera Batzordeak banaka aztertuko ditu Parlamentuak jasotzen dituen eskaera guztiak, haien onargarritasunari buruz erabakitzeko, eskaera eskubidea arautzen duen lege organikoak ezarritakoari jarraituz.

3. Eskaera aztertu ondoren, hura ez onartzea erabakitzen bada, Eskaera Batzordeak xedatuko du Parlamentuko lehendakariaren bitartez honakoei bidal dakiela:

a) Parlamentu-taldee, Parlamentuan ekimene bat bultzatu ahal izan dezaten, egoki baderitzote.

b) Nafarroako Gobernuari edo gaiaren arabera eskudun diren departamentuei, eta harekin batera, bidezkoa bada, eskaeraren edukiari buruzko azalpen-eskea.

c) Gaiaren arabera eskudun gisa hartzen duen administrazio publikoetako beste edozein organori, agintariri edo erakunderi.

d) Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari, bere foru lege arautzaileak ezarritako ondorioetarako.

4. Eskaera Batzordeak, eskaera bat aztertu eta onartezintzat deklaratu ondoren, beste izapiderik gabe artxiba dadila erabakiko du, betiere aurreko idatz-zatian adierazitako bidalketa bidezkoa ez bada.

5. Eskabide bat izapidetzerako onartu ondoren, Eskaera Batzordeak erabaki ahalko du eskatzailek agerraldia egitea, komenigarritzat jotzen badu.

6. Eskaera Batzordeak egoki diren erabakiak hartuko ditu izapidetzeko onarturiko eskaerei dagokienez, eta horiei buruzko gomendioak egin ahalko dizkie botere publikoei eta erakundeei.

7. Kasu guztietan, Parlamentuko Mahaiak eskaera jaso izanaren adierazpena emanen du, eta adierazpen hori Eskaera Batzordeari igorriko dio, zeinak, aurkezten denetik hiru hilabeteko epean, harturiko erabakien berri emanen baitie eskatzaileei.

#### 61. artikulua.

– 61. artikuluari 5. idatz-zati bat gehituko zaio, eta gaur egun 5. 6 eta 7. idatz-zatiak direnak aurretanzan 6, 7 eta 8. aizanen dira. Hona testua:

“5. Ikerketa batzordeek, beren helburuak bete-tze aldera, Nafarroako Gobernuko kideen eta Foru Komunitateko administrazioiko goi karguen jardue-ra eta interesen Erregistroko informazio babestu guztia eskuratu ahalko dute.”

#### 64. artikulua.

– Gaztelaniazko testuan, 64. artikuluko 1. idatz-zatian “asiendo” hitzaren ordez “asiento” ipintzea.

#### 73. artikulua.

– 73. artikuluko 1. idatz-zatiko azken esaldia aldatzea. Hona testu berria:

“Bilera, berriz, egun bereko goiz edo arratsaldean zehar egiten den bilkura-zatia da.”

#### 75. artikulua.

– 75. artikuluko 2. idatz-zatiari lerrokada bat eranstea; honela dio, hitzez hitz:

“Hedabideak joan daitezkeen bilkurak ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmititu ahalko dira.”

– 75. artikulua gaur egungo 2. idatz-zatiko azken lerrokada eranstea 3. idatz-zatiko testuari, azken idatz-zati hori osatzeko.

#### 82. artikulua.

82. artikuluko 3. idatz-zatiak honako testu hau izanen du:

“3. Foru parlamentarietako mintzatokitik hitz egin beharko dute, baina lehendakariak horrela ez egiteko baimen zehatza eman ahalko die. Dena den, batzordeetako mintzaldiak eta ahozko galderetako dagozkienak eserlekitik egiten dira.”

#### 88. artikulua.

88. artikuluari 5. idatz-zati berria gehitzea; gaur egun 5. idatz-zatia dena 6.a izatera pasako da, testu honekin:

“5. Zenbait parlamentu-taldek edo talde ezberdinetako foru parlamentarietako izenpeturiko proposamenak eztabaidatzen direnean, defentsarako txanda izanen da izenpetu dutenetako batentzat, eta gainerakoak aldeko txandan mintzatu ahalko dira. Kasu horietan, ihardesteko txanda proposamenaren defendatzailearentzat izanen da.

Aurrekoa gorabehera, proposamen-egileek lehendakariari adierazi ahalko diote defentsa eta ihardespen txandak erabili nahi dituztela haien denborak elkarren artean banatuz.

#### 90. artikulua.

– 90. artikulua aldatzea. Hona testua.

“90. artikulua. Legebiltzarreko zein Batzordeko lehendakariak, lehendakariordeek edo idazkariek eztabaidan parte hartu nahi badute, Mahaian daukaten tokia utzi beharko dute.”

#### 102. artikulua.

– Beste lerrokada bat, laugarrena, erantsiko zaio 102 artikuluari. Honela dio, hitzez hitz:

“4. Aurreko idatz-zatietan xedaturikoa salbu, lehendakariak bozketa bat errepikatzea agindu ahalko du, Mahaiko gainerako kideei entzun ondoren, soil-soilik bozketa-mekanismoan akats bat izan denean edo bozketaren emaitza ez denean bertaraturiko parlamentarietako egiazko borondatearen arabera, boto-emaeleak baten ageriko hutsegitearen ondorioz, eta berak berehalakoan eskatuta.”

103. artikulua.

– 103. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu eta testu hau ipintzea:

“1. Aurretiatzko eztabaidarik izan ez duen gai bati buruzko bozketa egin ondoren, lehendakariak bost minutuko txanda eman ahalko die parlamentu-taldeei, haiek beren botoari buruzko azalpenak eman ditzaten. Halaber, txanda hori eman ahalko dio aurretiatzko eztabaidan iragarritako botoa aldatzen duen parlamentu-taldeari.”

105. artikulua.

– 105.1 artikulua aldatzea. Hona testua:

“105.1 artikulua. Non eta kontrakoa ezartzen ez den, erregelamendu honetan egunka adierazten diren epeak egun baliiodunetan zenbatuko dira, eta hilabeteka adierazten direnak, berriz, datatik data-ra. Mugaegunaren hilabetean ez baldin badago zenbaketaren hasierako egunari dagokion egunik, ulertuko da epea amaitzen dela hilabeteko azken egunean.

Zenbaketari dagokionez, egun baliogabeak dira larunbat eta igandea, Nafarroa eta Iruñeko lan-egutegian jai-egun gisa agertzen direnak eta Legebiltzarreko Mahaiak baliogabe izendaturiko egunak.”

111. artikulua.

– 111. artikuluko 1. idatz-zatiaren amaieran honako testu hau gehitzea, amaierako puntuaren ordez koma bat ipiniz:

“bilkura horiek egin eta hilabeteko epean. Egunkari horretan jasoko dira, halaber, ikerketa batzordeetan egiten diren agerraldi publikoak.”

121. artikulua.

– 121. artikulua aldatzea. Hona testua:

“121. artikulua. Parlamentu barrenean, bilkuran edo bilkuratik kanpo, inork bere jokabidearekin egitez edo hitzez ordena larriki urratzen badu, berehala kanporatua izanen da.”

125. artikulua.

– 125. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu eta testu hau ipintzea:

“1. Nafarroako Gobernuak igortzen dituen foru lege proiektuek zioen azalpena eta legez nahitaezkoak diren txostenak edukiko dituzte, baita haiei buruz iritzia eman ahal izateko beharrezkoak diren aurrekariak ere.”

126. artikulua.

– Beste idatz-zati bat, zortzigarrena, erantsiko zaio 126. artikuluari. Honela dio, hitzez hitz:

“8. Artikuluei aurkeztutako zuzenketetatik ez dira onartuko aipagai duten testuarekin behar bezalako zerikusirik ez dutenak, ez eta, osotasunean aintzat hartuta, osoko zuzenketa batean jasotako ordezeko testu guztiarekin identifikatzen direnak ere.”

136. artikulua.

– 136. artikulua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“136. artikulua. 1. Batzordeko Mahaiak, proiektuaren eztabaida bukatu ondoren, irizpena igorriko dio Legebiltzarreko Mahaiari, batzordeak espresuki onetsia, eta horren kopia bat emanen die parlamentu-talde guztiei eta Askotariko taldeko foru parlamentariari.

2. Irizpenak batzordeak hartu dituen erabakiak bilduko ditu, nahiz eta Mahaiak sor litezkeen errakuntza eta akats teknikoak zein terminologia edo gramatika mailakoak zuzentzeko ahalmena izanen duen.

3. Legebiltzarreko lehendakariak aginduko du batzordearen irizpena argitara dadila. Kasua bada, 136. bis artikulua aipatzen dituen zuzenketa eta boto partikularrak ere argitaratuko dira.”

136. bis artikulua.

– Artikulu berri bat gehitzea, 136. bis zenbakia duena. Hona testua:

“136. bis artikulua. 1. Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektuan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organiko 20.2 artikuluan aipatzen diren foru lege proiektu eta proposamenetan, zuzenketa-egileek, irizpena batzordean onetsi ondoko bi eguneko epean Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idazki baten bidez, batzordeak onartu ez dituen zuzenketei eutsi ahalko diete Osoko Bilkuran berriro defendatzeko, baldin eta, gutxienez ere, batzordeko kideen bosten batek emandako aldeko botoa edo batzordean parlamentu-talde baten ordezkartza osoak emandako aldeko botoa lortu badute.

2. Aurreko atalak aipatzen duen idazkiak banan-banan adierazi behar du zein diren beharrezko baldintzak betetzen dituzten eta eutsi nahi zaien zuzenketak.

3. Batzordeko eztabaidan proiektuaren edo proposamenaren testua aldatzen bada, parlamentu-taldeen eta Askotariko taldeko foru parlamentariak, nork bere izenean, baztertua izan den testua-

ren aldeko boto partikularrak aurkeztu ahalko dituzte, 1. idatz-zatian aipatzen den denboran, haiek Legebiltzarreko Osoko Bilkuraren aurrean defendatze aldera.

Boto partikular horiek eskatu ahalko dute, hala bada, ken daitezela gehiketa egiteko zuzenketak onartzearen ondorioz irizpenean sartu diren zatiak.

4. Aurreko idatz-zatietan jasotako prozeduratik salbuetsita egonen dira proiektu edo proposamen jakin batzuen irizpenak; hain zuzen ere Mahaiak, Eledunen Batzarrak aho batez erabakia hartu ondoren, 137. artikuluari jarraikiz izapidetzea erabaki duen proiektu eta proposamenetako irizpenak.”

#### 137. artikulua.

– 137. artikulua aldatzea. Hona testua:

“137. artikulua. 136. bis artikuluan jasotako kasuetan izan ezik, foru lege proiektu edo proposamen bati buruzko irizpena batzordean egin ondoren, irizpen horren osotasunari buruzko eztabaida egingen da eta, jarraian, behar den bozketa egingen da.

Aurrekoa gorabehera, gutxienez ere Legebiltzarreko kideen gehiengoa ordezkatzeko duten parlamentu-taldeek eztabaidaren aurretik aurkezten dituzten “in voce” zuzenketak izapidetzera onartuko ditu lehendakariak. Zuzenketa horiek sinatzailerik defendatuko dituzte irizpenaren osotasunari buruzko jarrera hartzen dutenean, eta hasieran bozkatuko dira, bakoitza dagokion ordenan; onetsiak izanez gero, irizpenaren testuari txertatuko zaizkio, eta testuaren osotasunari buruzko bozketa bakarria egingen da.”

#### 138. artikulua.

– 138. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu eta testu hau ipintzea:

“138. artikulua. 136. bis artikuluan jasotako kasuetan, zuzenketarik mantendu bada edo boto partikularrik egin bada, irizpenaren artikulua eztabaidatu eta bozkatzeari ekinen zaio. Ondoko araei jarraituz jokatu da artikulua bakoitzari dagokionez.”

– 138. artikuluari 2. idatz-zati bat gehitzea. Artikuluak orain arte izan duen testua 1. idatz-zatia izatera pasako da. Hona 2. idatz-zatiaren testua:

“2. Zuzenketarik mantendu ez bada, ez eta boto partikularrik aurkeztu ere, eztabaida bat egingen da irizpenaren osotasunari buruz eta, jarraian, behar den bozketa egingen da.”

#### 139. artikulua.

139. artikulua aldatzea. Hona testua:

“139. artikulua. Aurreko artikuluan aipaturiko eztabaidan zehar, lehendakariak “in voce” zuzenketak onartu ahalko ditu izapidetzera, baldin eta haien xedea errakuntza edo akats teknikoak zein terminologia edo gramatika mailakoak zuzentzea baldin bada. Beste edozein kasutan, soilik onartu ahalko dira izapidetzera baldin eta ezein parlamentu-talde onarpenaren aurka egiten ez badu.”

#### 145. artikulua.

– 145. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu eta testu hau ipintzea:

“1. Foru lege proposamenak ondorengo hauek egin ahalko dituzte:

a. Foru parlamentari batek edo batzuek.

b. Parlamentu-talde batek edo batzuek, eledunen sinadura soilarekin.

#### 149. artikulua.

– Beste idatz-zati bat, hirugarrena, erantsiko zaio 149 artikuluari. Honela dio, hitzez hitz:

“3. Foru lege proiektu edo proposamen batean jasota dauden xedapenetako batzuk gehiengo osoko legee dagozkienean, eta beste batzuek bestelako gaiak arautzen dituztenean, Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki ahalko du proiektu edo proposamen hori bi foru lege proiektu edo proposamenetan zatitzea, zeinak bereizirik izapidetuko baitira; bata, hurrengo artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta bestea, prozedura arruntari jarraikiz.

Baldin eta aipaturiko erabakia baino lehenago ordenatuta baleude hasierako foru lege proiektu edo proposamenari aurkezturiko zuzenketak, batzorde eskuduneko Mahaiak berriro ordenatuko ditu, bakoitza dagokion proiektu edo proposamenari lotzeko.

#### 155. artikulua.

– 155. artikulua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“155.1. artikulua. Foru lege proiektuaren edo proposamenaren izaerak komenigarri egiten badu edo idazkeraren soilak horretarako bide ematen badu, Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki ahalko du aipatu proiektu edo proposamena Legebiltzarreko Osoko Bilkuran zuzenean eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

2. Erabaki hori hartuta, zuzenketak aurkezteko epea irekitzea aginduko du Mahaiak. Zuzenketa



horiek ezin izanen dira osotasunari buruzkoak izan. Mahaiari aurkeztuko zaizkio, eta Mahaiak zuzenketa horiek kalifikatuko ditu. Epe hori, Mahaiak bestelakorik ezartzen ez badu, eztabaida eginen den Osoko Bilkuraren aurreko eguneko hamabietan bukatuko da.

3. Proiektua irakurketa bakarrean izapidetzen den ala ez bozkatzuz hasiko da Osoko Bilkura. Ondoren, Osoko Bilkurak halako izapidetzea onartuz gero, foru lege proiektu edo proposamenaren eztabaidari ekinen zaio, osokoetarako jarritako arauari atxikiz. Parlamentu-talde bakoitzari txanda bana egokituko zaio bere zuzenketa guztiak defendatzeko.

4. Irakurketa bakarreko izapidetzea ez onesteak berarekin ekarriko du kasuko foru lege proposamenaren bazterketa, kasua bada, edo foru lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

5. Eztabaida bukatu ondoren, non eta parlamentu-talderen batek zuzenketa edo zuzenketa-multzoen araberrako bozketa berezia eskatzen ez duen, lehendakaritzak bozketa bakarrera jarriko ditu parlamentu-talde bakoitzak artikuluei egindako zuzenketa guztiak, aurkezpen-hurrenkeraren arabera.

6. Azkenik, testu osoa, onartutako zuzenketa gehituz, bozketa bakarrera jarriko da. Bozketaren ondorioa aldekoa bada, onarturik geratuko da testua. Ezetsia izanen da, bestela.

#### 156. artikulua.

– 156. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu eta testu hau ipintzea:

“1. Mahaiak, gutxienez ere parlamentuko kideen bi heren ordezkatzun dituzten eledunek Eledunen Batzarrean aurretiazko erabakia harturik, batzordeen esku utzi izanen du foru lege proiektu eta proposamenak onestea, salbu eta aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektua eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua aipatzen dituen foru lege proiektu eta proposamenak, zeren eta, kasu horretan, batzordeak legegintzarako eskumen osoz jardunen baitu.”

#### 181. artikulua.

– 181. artikuluko 3. idatz-zatiaren bukaera aldatu eta testu hau ipintzea:

“... jabeldura aurkeztu duen foru parlamentariak edo parlamentu-taldeak jabeldurari hurrengo bilkuraldi horretarako eutsi nahi diola adierazten ez badu, amaitu den bilkuraldiaren amaieraren ondoko bost egunetan.”

#### 188. artikulua.

188. artikulua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“188.1. artikulua. Osoko Bilkurarako ahozko galderak jasotzen dituzten idazkiak aurkeztu beharko dira haiak eztabaidatu nahi direneko osoko bilkuraren gai-zerrenda onesten duen Mahaiaren bilkuraren aurreko osteguneko hemeretzia baino lehenago.

Halaber, parlamentu-talde bakoitzak gaurkotasun handiko galdera bana aurkeztu ahalko du hura egin nahi dueneko osoko bilkura egitekoa den asteko asteleheneko bederatzi eta erdiak baino lehenago.

2. 45.1 artikuluari jarraikiz, parlamentu-talde bakoitzak batzordean zenbat kide dituen, hainbeste galdera arrunt aurkeztu ahalko ditu osoko bilkura bakoitzerako.

Halaber, zenbat parlamentu-talde, gaurkotasun handiko hainbeste galdera aurkeztu ahalko dira, parlamentu-talde bakoitzeko kide banak eginak.

3. Osoko Bilkura baterako gai-zerrendan parlamentu-talde bakoitzak eginiko galdera arruntak, sartzeko daudenak, gehiago badira 2. idatz-zatian aurreikusitakoak baino, haien lehentasuna erabakiko da aurkezpen-hurrenkeraren arabera.

4. Eztabaidan, foru parlamentariak galdera laburki egin eta gero, eginkizun hori duen gobernuakideak erantzuna emanen du. Parlamentariak berriz esku hartu ahalko du ihardetsi edo berriz galdetzeko eta, gobernuaren beste esku-hartzearen ondoren, eztabaida bukatuko da. Galdera bakoitza izapidetzeko denbora ezin izanen da hamar minutu baino gehiagokoa izan, berdinki banatua galdera egiten duen foru parlamentariaren eta erantzuna ematen duen gobernuakidearen artean.

5. Osoko Bilkurarako galdera azaltzean, galdera egiten duen foru parlamentariaren ordezkariak beste bat aritu ahalko da, horren berri lehendakariari eman ondoren.

6. Nafarroako Gobernuak edozein unetan eskatu ahalko du, arrazoiak adieraziz eta galdera bakoitzarekin behin baino ez, hurrengo Osoko Bilkurarako atzera dadila; hori horrela, Osoko Bilkura horretako gai-zerrendan sartuko da, 2. idatz-zatian aurreikusitako galdera-kopurua murriztu gabe.

7. Bilkuraldiaren amaieran erantzuteke dauden galderak idatziz erantzunen dira hurrengo bilkuraldia hasi baino lehenago, non eta galdera aurkeztu duen foru parlamentariak ez duen adierazten galderari hurrengo bilkuraldi horretarako eutsi nahi

diola, amaitu den bilkuraldiaren amaieraren ondoko bost egunetan.”

#### 189. artikulua.

– 189. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu eta testu hau ipintzea:

“2. Aurreko artikuluko 4. idatz-zatian ezarritakoaren arabera izapidetuko dira, baina honako berezitasunarekin: galdera bakoitza izapidetzeko denbora ezin izanen da hogeit hamar minutu baino gehiagokoa izan.

#### 190. artikulua.

190. artikuluko 1. idatz-zatiaren amaieran honako testu hau gehitzea:

“1. ... Epe hori ezin izanen da eten ezta hura igaro bitartean bilkuraldia amaitzen denean ere.”

#### 191. bis artikulua.

XI. tituluko III. kapituluaren, Arau komunak, 191. bis artikuluko berri bat gehitzea, testu hau izanen duena:

“191. bis artikulua. Osoko Bilkura arruntetan, oro har, gutxienez ere ordu bete emanen da galdera eta jabelduretarako.”

#### 196. bis artikulua.

– 196. bis artikuluko 2. idatz-zatiko f) letra aldatzea, honako esaldi hau ezabatuz: “..erabaki proposamen horietan aurrekontu-hitzarmenak baldin badaude, beharrezkoa izanen da Gobernuaren baieztokoa iritzia.”

#### III. kapitulua, XIII. titulua (idazpurua).

– XIII. tituluko 111. kapituluaren idazpurua aldatzea. Hona testu berria:

“Nafarroako Gobernuaren agerraldiak.”

#### 198. artikulua.

– 198. artikuluko 5 eta 6. idatz-zatietan, “lehendakariak aldi baterako etenen du bilkura” esaldia- ren ordeztu testu hau ipiniko da: “lehendakariak aldi baterako eten ahalko du bilkura.”

#### XIV. titulua.

– XIV. tituluko idazpurua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“XIV. TITULUA.- PARLAMENTUAREN HARREMANAK COMPTOS GANBERAREKIN, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ARARTEKOAREKIN ETA NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN KONTSEILUAREKIN.”

– XIV. tituluko “II. kapitulua.- Parlamentuari txostenak ematea” izeneko epigrafea, 200. artikulua- ren aurretik dagoena, ezabatzea.

XIV. tituluaren II. kapitulu berri bat gehitzea, izen hau izanen duena:

“II. kapitulua.- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren txostenak.”

“200. bis artikulua. 1. Parlamentuko Mahaiak, arartekoaren urteko txostena jaso ondoren, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agindu eta Foru Araubideko Batzordeari dei egingen dio arartekoak haren aurrean agerraldia egin dezan. Agerraldi hori egingen da 198.5. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.

2. Arartekoaren urteko txostena honako prozedura honi jarraikiz eztabaidatuko da Osoko Bilkuran:

1.- Arartekoak txostenaren laburpen bat agertzea, gehienez ere hogeit hamar minutuz.

2.- Azalpen hori amaitu ondoren, parlamentu- talde bakoitzaren ordezkari banak esku hartu ahalko du, gehienez ere hamabost minutuz eta txikie- netik handienerako hurrenkeran, nor bere jarrera adierazteko.

Eztabaida horri dagokionez, ezin izanen da erabaki-proposamenik aurkeztu.

3. Arartekoak aurkeztutako txosten monografiko edo bereziak Foru Araubideko Batzordean izapide- tuko dira, 1. idatz-zatian xedatuari jarraikiz.

– XIV. tituluaren III. kapitulu berri bat gehitzea, izen hau izanen duena:

“III. kapitulua.- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren txostenak.”

“200 ter artikulua. 1. Parlamentuko Mahaiak, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren urte- ko txostena jaso ondoren, Nafarroako Parlamen- tu- ko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agindu eta batzorde eskudunari dei egingen dio kontseiluko lehendakariak haren aurrean agerraldia egin dezan. Agerraldi hori egingen da 198.5. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.

2. Ikus-entzunezkoen Kontseiluko lehendakari- ak bere ekimenez edo Eledunen Batzarrak, bi par- lamendu-taldek edo foru parlamentarien bosten batek eskaturik, Parlamentuari bidalitako txosten bereziak izapidetuko dira aurreko idatz-zatian eza- rritako moduan.”

#### XV. titulua.

– XV. tituluko idazpurua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“XV. TITULUA.- SENATARIEN HAUTAKETA ETA COMPTOS GANBERAKO LEHENDAKARIAREN NAHIZ NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ARARTEKOAREN IZENDAPENAK”

– XV. tituluan III. kapitulu bat gehitzea, izen hau izanen duena:

“III. kapitulu.- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren izendapena.”

“203. bis artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Parlamentuaren Osoko Bilkurak hautatuko du, Arartekoari buruzko Foru Legeak eta honako arauak ezarritakoari jarraikiz:

1.- Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarri entzun ondoren, arartekorako hautagaiak aurkezteko epea ezarriko du.

2.- Hautagaiak aurkezteko, parlamentu-taldeek edo Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentariak idazki bat zuzenduko diote Mahaiari, eta hari gehituko zaizkio hautagaitzaren onarpenari buruzko adierazpena eta foru lege hartan ezarritako baldintzak betetzearen frogak.

3.- Hautagaiak aurkezteko epea bukatu ondoren, Mahaiak hautagaiak aldarrikatu eta Legebiltzarreko Osoko Bilkurarako deia egingen du.

4.- Arartekoa hautatuko da erregelamendu honetako 100. artikuluan ezarritako sistemari jarraikiz”

#### XVII. titulua.

– XVII. tituluko idazpurua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“NAFARROAKO PARLAMENTUAREN EDO GORTE NAGUSIEN AGINTALDIAREN AMAIERAN IZAPIDETZEN ARI DIREN AFERAK.”

#### 207. artikulua.

– 207. artikuluari bi idatz-zati, bigarrena eta hirugarrena, gehitzea; artikulua horrek gaur egun duen edukia 1. idatz-zatia izatera pasako da. Hona gehitu beharreko bi idatz-zatien testua:

“2. Parlamentuaren agintaldia amaitu ondoren, hartarako hauteskundeetarako deialdia egin eta gero, Diputatuen Kongresuko Mahaiari aurkeztu

eta oraindik ere aintzat hartuak izateke dauden lege proposamenak iraungi egingen dira.

3. Baldin eta Gorte Nagusietan iraungi egiten bada Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresuko Mahaiari aurkezturiko lege proposamen baten izapidetzea, Parlamentuko Osoko Bilkurak, Eledunen Batzarrak proposaturik, erabaki ahalko du aurkezpena errepikatzea eta proposamenaren defentsarako hautaturiko foru parlamentariak berrestea.

#### Bosgarren xedapen gehigarria.

– Xedapen gehigarri berria, bosgarrena, gehitzea, testu hau duena:

“Bosgarrena. Erregelamendu honen gaztelaniazko testuak kargu instituzionalak aipatzen dituzten adierazpen-ekonomiaren mesedetan genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasu guztietan (Presidente, Vicepresidente, Secretario, Parlamentario, Consejero eta abar) ulertu behar da postu horiek orokorrean hartzen dituela hizpide, haiek bai emakumezkoek bai gizonezkoek betetzen dituztela ere, erabateko berdintasun-baldintzetan, ondorio juridikoen ikuspegitik”. Kargua emakume baten ardurapean dagoenean, izendapenean genero gramatikal femeninoa erabiliko da, kasu bakoitzari dagokion formarekin (Presidenta, Vicepresidenta, Secretaria, Parlamentaria, Consejera eta abar)”

#### Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

1. Erregelamenduaren aldaketa hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da, eta onetsi ondoko legegintzaldian Nafarroako Parlamentua eratzeko bilkura egiten den egun berean hartuko du indarra, salbu eta 37. artikuluko 3. idatz-zati berriak, zeinak indarra hartuko baitu Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

2. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari aldaketa honek indarra hartu eta lau hilabeteko epean Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateratua egiteko, zeinari erantsiko baitzaizkio onetsitako aldaketak.”

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,34 »	